

Ingurumenarekiko Konpromisoa




Usurbil GLHBik, ingurumen kudeaketa on batek gure gizartearen garapen iraunkorrean daukan garrantziaz jabetuta, ingurumen politika bat ezartzea erabaki du, gure jarduerak ingurunearen gainean daukan eragina ahalik eta gehien murrizteko.

Gizartearekiko konpromiso hori erakusteko, ondorengo konpromisoak eta jarduera gidalerroak ezarri ditu:

- Indarrean dauden ingurumen legedi eta araudi aplikagarriak betetzea.
- Energia eraginkortasuna sustatzea.
- Plangintza eta erabaki-hartze prozesuetan ingurumen irizpideak erabiltzea.
- Hondakinen gaikako bilketa egitea.
- Eskola-elkarte osoak ingurumen politikarekin lotutako konpromisoak bere egi-tea bultzatzea.
- Ikastetxean nabarmentzen diren ingurugiroari lotutako hobekuntzak bultzatzea.
- Ikasle eta partikularren bisitak antolatuz, ingurugiroari buruz erreferentziazko zentroa izatea.

Prozesu hau, **EKOSCAN** araberako Ingurumen Kudeaketa Sistema baten eremuan garatzen da.

Ingurumen Portaera Adierazleak



Informazio gehiago nahi izanez gero, sistemaren kudeatzailea hau da
Juan Andrés Rebollo. Tf: 943364600
irjarebollo@lhusurbil.eus

2017-2018 IKASTURTEA

Hobekuntza Plana 2018/2018



Paper kontsumoa murriztea

- Apunteak banatzeko plataforma digitalak erabilera (Drive) hedatu
- Paperaren berrerabilera sustatu
- Ekipoak konfiguratu, bi aldeetan eta zuri beltzean inprimatzeko



Erosketa berdea

- Ingurumen irizpideak dituzten materialak erostea



Energia kontsumoa murriztea

- Mozketa elektrobalbulak jarri
- Ikasle eta irakasleei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina egin



Hondakinen sorrera murriztea

- Norberaren edalontzia/taza erabiltzeko aukera duen kafe makina jarri
- Ur dispensadoreetan norberaren edalontziak/botilak erabiltzea sustatu
- Hondakinen gaikako bilketa hobetu

Hobekuntza Emaitzak



PAPER KONTSUMOA

2017/2018 ikasturtean eraginkortasuna eta erdi mailako zikloetan **apunteen elkartruckerako** egin den **Drive**-aren erabilerrari esker **%10ean jaitsi** da zentroko erabiltzaileko egiten den **paper kontsumoa**.



EROSKETA BERDEA

Usurbilgo Lanbide Eskolan orain arte paper birziklatua eta ingurumen irizpideak dituzten zenbait boligrafo erabili izan dira. 2017/2018 ikasturtean, horietaz gain **%100 birziklatuak** diren **post-it** eta **ingurumen irizpideak dituen kola** erosi da baita ere.



ENERGIA

Zentroko zenbait gunetan argiak itzaltzeko kartelak jarri eta egiten den kontsumoaren jarraipena egiten hasi bagara ere, **energia kontsumoak gora egin du** bai **balore absolutuetan (%3)**, baita **erabiltzaileko kontsumoan ere (%8)**.



HONDAKINAK

Taller-etan eta bereziki mekanikan trapu asko erabiltzen dira, hondakin ugari sortuz. Berauek garbitu eta berrerabiltzeko aukera aztertu bada ere, oraingoz bideragarria ez dela ikusi da.